

# AMOREBIETA -ETXANOKU

JAIAK 2022

Karmenak eta Santanatzu

Uztailak 15-27





## PREGOILARIAK

# Udazken Txistulari Taldea

**U**dazken Txistulari Taldeko kideak 1997. urteko irailean irten ziren lehen aldiz Amorebieta-Etxanoko kaleetara. Ordutik hona hogeita bost urte pasa dira ia, eta herriko kultura talde egonkorrenetakoa bihurtu da. Abuztuan izan ezik, urteko domeka guztietan egiten dute kalejira taldeko kideek, negu zein uda. Baina, Amorebieta-Etxanok duen ondare kultural horretaz gainera (ez baitira asko Euskal Herrian zehar asteroko ohitura hori duten herriak), hitzordu nagusi bi izaten ditu taldeak urtero: batetik, herriko jaietan hainbat musikarirekin batera eskaintzen duen alardea; eta, bigarrenik, Euskal Herri zabaleko txistulariak hartzen dituen eta aurtan hogeita batgarren ekitaldia izango duen Txistulari Eguna. Halaber, ezin aipatu gabe utzi santikurutzetan hasi eta santaluziak arte auzorik auzo ibiltzen direla udazkendarrak txistu doinuak zabaltzen.

Zornotzaren eta txistuaren arteko harremanak sustrai sakonak ditu; izan ere, Txistulari aldizkariak dokumentatuta dauka herriak udal txistulari ofiziala eduki izan duela. Eta haria ez da eten: berrogeita hamarretik gora kide izan ditu Udazkenek sorreratik gaur arte, eta Zubiaur Musika Eskolak harrobi izaten jarraitzen du gaur egun Udazken taldearentzat.

Laburbilduz, herritik eta herriarentzat diharduen taldea da Udazken. Azken batean, tradizioa eta modernitatea uztartuz, txoko eta bazter guztiak txistu hotsez eta euskal kulturaz busti dituen lagun kuadrilla. Eta, zornotzarrek nahi duten bitartean, hala izaten jarraituko du.

**L**as personas que forman parte de Udazken Txistulari Taldea salieron por primera vez a las calles de Amorebieta-Etxano en septiembre de 1997. Desde entonces han pasado casi veinticinco años y la cultura local se ha convertido en uno de los grupos más estables. Salvo en agosto, todos los domingos del año sus músicos y músicas realizan pasacalles, tanto de invierno como de verano. Pero, además de ese patrimonio cultural que tiene Amorebieta-Etxano (ya que no son muchas las localidades de Euskal Herria que tienen esta costumbre semanal), el grupo tiene dos citas principales cada año: por un lado, el Alarde que ofrece en sus fiestas patronales junto a otros artistas; y, por otro, el Txistulari Eguna que acoge a txistularis de la toda Euskal Herria y que este año tendrá su vigésimo primera edición. Asimismo, no se puede dejar de mencionar que, desde los santikurutzes, los veraneantes se desplazan por los barrios hasta la fiesta de Santa Lucía.

La relación entre Zornotza y el txistu tiene profundas raíces, ya que la revista Txistulari tiene documentado que la localidad ha contado con txistulari oficial municipal. Y el hilo conductor no se ha interrumpido: más de cincuenta personas han formado parte de Udazken desde su fundación hasta hoy, y Zubiaur Musika Eskola sigue siendo una cantera para el grupo.

En resumen, Udazken es un grupo que actúa desde y para el pueblo. En definitiva, una cuadrilla de amigos y amigas que, aunando tradición y modernidad, ha impregnado todos los rincones de txistu y cultura vasca. Y, mientras los y las zornotzarras quieran, lo seguirá siendo.





**Andoni Agirrebeitia**  
Amorebieta-Etxanoko Alkatea



**H**emen ditugu berriz ere Karmenak eta honekin batera ilusio, festa eta momentu onak. Inoiz baino gehiago, zornotzarrok pozez beteta egingo diegu ongi etorria, bi urteko pandemiaren ondoren, normaltasunera itzultzea esan nahi baitu jaien itzulerak. Ezin dut atzera begiratu eta bizi izan ditugun bi urte latzak gogoratzeari utzi. Oroitzapen hori abiapuntu bihurtu nahi dut, festez, onenak diren gure jaietz, gozatzen lagun diezagun. Ez ditut ahaztu nahi jada hemen ez dauden herritarrek. Gogoan izan nahi ditut, baita ere, oso egoera mingarrietan lagun izan dituztenak, parekorik ez duen elkartasunaren eta maitasunaren adierazle direnak. Nire eskerrik onena eta sentituena eskaini nahi diet.

Esker on horretatik abiatuta, etorkizunera begiratu behar dugu; etorkizun itxaropentsu batera; jaietan poza izango da nagusi, eta sentimendu hori, urteko gainerako egunetan ere nagusi izatea nahiko nuke.

Beste behin ere, Jai Batzordearen bidez, udal-teknikariekin batera, kultur eta kirol arloko elkarteek, ostalaritzak, saltokiek, auzo-elkarteek, baita pertsona anonimoez ere, jai-programa edukiz betetzeko eta guztiok bertan elkarrekin gozatzeko egiten duten lana baloratu eta goraiatu nahi dut. Ziur nago guztiok aurkituko dugula egitarau zabal honetan gozatzeko ekitaldiaren bat, partekatzeko uneraren bat eta, azken batean, zoriotsuago egingo gaituen arrazoien bat, etorkizun hobea goa posible dela sentiaraziko gaituena.

Izan ere, Karmenak batez ere jai parte-hartzaileak dira eta horren erausea da urtez urte antolatzen diren ekitaldietan, izan kolore edo mota batekoak zein besteak, elkartzten den jende kopuru handia. Gure hizkuntzan bizitzera animatzen zaituztet, euskara tabernetan eta txosnetan eskatzerakoan erabiltzera, gure herrian erosterakoan eta kontsumitzerakoan, eta baita jaietz gozatzerakoan ere.

Eta denok gure jaietan parte hartzeko dugun eskubidearen aitortzan, eraso matxistatik gabeko jaiak nahi ditut, ez dut nahi Amorebieta-Etxanon aniztasuna ukatzerik. Argi eta garbi esan nahi dut ez dela ez, eta ezetz besterik ez duela esan nahi. Eraso matxistek ez dutela lekurik gure herrian.

Uztailaren 15ean guztiok dugu hitzordua Herriko Plazan, 2022ko jaiak hasiera emateko. Bertan Karmen jaien unerik esanguratsuenetako bat berreskuratuko dugu eta aurten, gainera, Udazken Txistulari Taldearekin izango da hori. Haiek izango dira gure pegoilariak; ez dugu aukera hobea izango duela 25 urte gure kaleak, plazak eta auzoak musikaz betetzeko egin zuten apustua aitortzeko eta eskertzeko. Horregatik guztiagatik, eskerrik asko UDAZKEN TXISTULARI TALDEARI.

**V**olvemos a tener aquí las fiestas de 'Los Carmenes', motivo de ilusión, fiesta y buenos momentos. Más que nunca, las y los zornotzarros recibiremos estos días con la alegría que esto significa, una vuelta a la normalidad tras dos duros años de pandemia.

No puedo evitar echar la vista atrás para recordar los dos años tan duros que hemos vivido. Este recuerdo lo quiero convertir en plataforma de partida para que nos ayude a disfrutar de las fiestas, de nuestras fiestas, las mejores. No quiero olvidar a nuestras vecinas y vecinos que ya no están aquí. También quiero recordar a quienes les han acompañado en circunstancias muy dolorosas, dando un ejemplo de solidaridad y cariño difícil de igualar. Vaya por todas ellas y ellos mi más sentido reconocimiento.

Desde ese reconocimiento sentido, debemos mirar al futuro, a un futuro esperanzador donde la alegría que emana de las fiestas sea el denominador común de estos días y como no, de todos los del resto del año.

Una vez más, quiero valorar y subrayar el enorme trabajo que, a través de la comisión de fiestas, junto con las y los técnicos municipales, desarrollan asociaciones tanto culturales como deportivas, hostelería, comercios, asociaciones vecinales, incluso personas anónimas, para llenar de contenido el programa de fiestas, convencido de que todas y todos encontraréis en él momentos para disfrutar, para compartir, en definitiva, para encontrar razones que nos hagan más felices y nos hagan creer que un futuro mejor es posible.

Porque "Los Carmenes" son eminentemente fiestas participativas, como lo demuestra año tras año la asistencia masiva a los actos que se programan, sean del color o del tipo que sean. Os animo también a vivirlas en nuestra lengua, a utilizar el euskera para pedir en bares y txosnas, para comprar y consumir en nuestro pueblo, para disfrutar en euskara de nuestras fiestas.

Y en el reconocimiento al derecho que todas y todos tenemos a participar de nuestras fiestas, quiero unas fiestas libres de agresiones machistas, no quiero que en Amorebieta-Etxano se niegue la diversidad, quiero decir alto y claro que no es no y solo quiere decir no, que las agresiones machistas no tienen cabida en nuestro pueblo.

El 15 de julio todas y todos tenemos una cita en la "Herriko Plaza" para dar comienzo a las fiestas de 2022. Recuperaremos así unos de los momentos más emblemáticos de "Los Carmenes" y además este año de la mano de la música, de "Udazken". Ellas y ellos serán nuestros pregoneras y pregoneros, y qué mejor ocasión para reconocerles y agradecerles la apuesta que hace 25 años hicieron para, desde la tradición, llenar de música nuestras calles, plazas y barrios. Por todo ello gracias, muchas gracias a UDAZKEN TXISTU TALDEA.

# 2022 Karmenak eta Santanatzu!!!

**Uztailak 15**

**20:00 Herriko plaza**

Pregoia, txupinazoa eta ZORHONTZAREN kalejira, ONDALAN, ISKADI, Bermeoko KIETB eta Amorebieta-Etxanoko UDAZKEN BARRIA eta ETXANOKO erraldoi eta buruhandien konpartsak, UDAZKEN txistulariak eta gaiteroak, Zornotzako Musika Bandarekin.

Pregón, chupinazo, y pasacalles de ZORHONTZA con las comparsas de gigantes y cabezudos de ONDALAN, ISKADI, KIETB de Bermeo y UDAZKEN BARRIA y ETXANO de Amorebieta-Etxano, gaiteros y txistularis de UDAZKEN con la Zornotzako Musika Banda.

**21:30 Euskal Herria plaza · Kalbarioa  
Kaleko Musika**

**EUSKORLEANS  
DIXIE BAND**



**22:30 Zubiondo  
Kontzertua**

**DOCTOR DESEO**



**23:00 Zelaieta parkea  
Erromeria**

**ZIRKINIK BEZ!**



## Uztailak 16

Goizean Larrea · Por la mañana

### KARMENGO JAIA

Meza, bertsolariak,  
UDABARRI dantza taldea,  
eta Euskal erromeria  
TRIKI PIU taldearekin.

### FIESTA DEL CARMEN

Misa, bertsolaris, Udabarri y  
romería con Triki Piu.

Ostean · Después  
Larreako landetan

### URREZKO AIZKOLARI TXAPELDUNEN LIGA

Hodei EZPELETA vs  
Julen BASOZABAL

### HARRIJASOTZAILEAK

Emakume maila:  
Karmele "ZELAI III" (Mallabia)  
Gizon maila:  
Josetxo URRUTIA (Leitza)

11:00 Gure Kirolak bolatokian

### UMEENTZAKO BOLO TXAPELKETA

Torneo de bolos infantil

Ant · Org: Club bolos Zornotza

11:00 Herrian zehar · Por las calles

### UDAZKEN taldearen kalejira

Pasacalles de los txistularis de UDAZKEN

12:00 Larrea eskolako patioa

### ARKU TIROKETA

Tiro con arco y  
stand participativo al público

Ant · Org: Ostadar



17:30 Zelaieta parkean

## KOADRILEN ARTEKO ALTXORRAREN BILA

Ant · Org: Zornotzako koadrilak



18:00 Amorebieta IV frontoia

## PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK

Morgaetxebarriaren debuta  
Partidos de pelota profesionales



## ALBERDI II-URIONDO VS ZUBIZARRETA-ARETXABALETA

## URRUTIKOETXEA-ELIZEGI VS LASO MORGAETXEBARRIA

Ant · Org: Lagun Onak pilota elkartea



16:00 Zelaieta parkea

## AMOREBIETA-ETXANOKO IV. DUATLOI TXIKIA

Ant · Org: Amorebieta-Etxanoko Triatloi taldea

18:00 Zubiondo parkea – Herriko plaza

## BIZIKLETA EGUNA

Día de la bici

## Ginkana Herriko plazan

Ant · Org: Urgozo iturria txirrindulari elkartea



20:00 Andra Mari plaza · Gernika plaza  
Zezilia Gallartzagoitia · San Juan  
Kalbarioa · Luis Urrengoetxea

Kaleko musika

## KITTU





20:00 Herriko plaza  
Kale Antzerkia gazteleraz  
en castellano

## ¡QUE BUEN DIA!

Cia Maite Guevara



21:00 Gure Kirolak bolatokian  
**KARMENETAKO X.  
BOLO TXAPELKETA**  
X. Torneo de bolos de fiestas.  
Ant · Org: Club bolos Zornotza



22:00 Zubiondo plaza  
Konzertua  
**RAT-ZINGER  
ERRUKI ERROMERIA**



22:30 Zelaieta parkea  
Kamp berbena  
**EN ESENZIA**



## Uztailak 17

10:00 Herriko plaza  
**XL. XAKE TXAPELKETA**  
XL. Torneo de ajedrez  
Agustín Zamakona Memoriale  
Memorial Agustín Zamakona



**ALDI BEREKO  
50 XAKE PARTIDA**  
50 partidas simultáneas de ajedrez  
Ant · Org: Club de ajedrez Zornotza



10:00 Zelaieta parkea  
**RALLYEN KOTXEEN  
ERAKUSKETA**  
Exposición coches de rallyes  
Ant · Org: Lanzero Classic



17:00 Ibaizabal erreka

## KOADRILEN ARTEKO PIRAGUA JAITSIERA

Bajada de piraguas  
entre cuadrillas

Ant · Org: Zornotzako koadrilak



17:00 Amorebieta IV frontoia

## KARMENETAKO XIV. ESKU-PILOTA TXAPELKETA

Torneo local de pelota mano  
Federatuen finalak  
finales de federados

Ant · Org: Lagun Onak pilota elkarte



18:00 Herriko plaza

Kale Antzerkia euskaraz  
en euskara

## “AKABO!”

Barsanti

21:00 Zelaieta parkea

## BERTSOLARIAK

**ALAIA MARTIN**  
**AITOR BIZKARRA**  
**JONE URIA**  
**IGOR ELORTZA**

Gai jartzailea: Zornotzako  
Eta Abar Bertso Eskola

22:30 Zubiondo parkea

Kontzertua

## SOROTAN BELE GOGOAN ZORNOTZAKO MUSIKA BANDA





# Uztailak 22

13:00 Kalbario plazatik

## KOADRILEN KALEJIRA

Ant · Org: Zornotzako koadrilak



15:00 Zelaieta parkea

## KOADRILEN ARTEKO BAZKARIA

Ant · Org: Zornotzako koadrilak



18:00 Luis Urrengoetxea

Kaleko musika

## SAKATU ELEKTROTARANGA

Ant · Org: Zornotzako koadrilak



21:30 Zelaieta parkea

## TXISTULARIEN XXII. KONTZERTUA

XXII. Gran concierto  
de txistularis

Artista gonbidatua

Artistas invitado/a:

**JON ALLENDE**

Ant · Org: Udazken txistu taldea



22:30 Zubiondo plaza

Kontzertuak

## SUPERCREMALLERAS TREMENDA JAURIA



# Uztailak 23

10:00 Zubiondo parkea

## BASKET 3x3

Ant · Org: Zornotza Saskibaloia taldea

10:30 Zubiondo parkea

## MARMITAKO LEHIAKETA

Concurso de marmitako

Ant · Org: Zornotzako koadrilak

17:30 Zubiondo plaza

Erromeria

## GOZATEGI

19:00 Gernika plaza · Andra Mari plaza ·  
Zezilia Gallartzagoitia

Kaleko Musika

## KOLPEZ BLAI Batukada

21:00 Kalbarioa · Luis Urrengoetxea

Kaleko Musika

## KOLPEZ BLAI Batukada

22:30 Zelaieta parkea

Kanp berbena

## JAMAICA SHOW ORKESTRA

23:00 Zubiondo plaza

Kontzertua

## ROMEA MERINA GRIS

Dj jaia

## DJ ROMEA



# Uztailak 24

Goizean Zezilia Gallartzagoitia  
Por la mañana

## BASERRITARREN AZOKA

Feria de productos de caserío  
Ant · Org: Enba



10:00 Zubiondo parkea

## AMOREBIETA-ETXANOKO XI. JAI LASTERKETA

XI. Carrera de fiestas  
de Amorebieta-Etxano

Ant · Org: Zornotzako korrikalariak



11:00 Jauregibarria

## ONTZI- MODELISMOAREN ERAKUSTALDIA

Exhibición de modelismo naval

Ant · Org: Bilbo Model Club



11:00-14:00 · 17:00-19:00  
Euskal Herria plaza

## UMEENTZAKO EGURREZKO JOLASAK

Parque Infantil  
de juegos de madera



11:00 Jauregibarria parkea

## EUSKAL HERRIKO ARTZAI TXAKURREN TXAPELKETA

Competición de perros  
pastor de Euskal Herria

Ant · Org: Artxate elkarte





12:00 Gernika Plaza · Andra Mari Plaza ·  
Zezilia Gallartzagoitia

Musika kalean


## TRIKI PIU



17:00 Amorebieta IV Frontoia

## XIII. PALA TXAPELKETA

Herriko Txapelketaren finalak  
Finales del campeonato local



## EMAKUMEEN IV. PALA TXAPELKETA

Finalak · Finales

Ant · Org: Erdu Pilotan



18:00 Herriko plaza

Kale Antzerkia euskaraz  
en euskara

## “YIJAAAA!”

Goitibera



22:00 **TANBORRADA**

Ibilbidea · Recorrido:  
Txiki Otaegi, San Pedro,  
San Miguel, San Juan,  
Nafarroa, Ibaizabal,  
Gudari, Herriko plaza



22:30 Zubiondo plaza

Kontzertuak

## LA TOPADORA KILIMAK



23:30 Zelaieta parkea

## DJ TXURRU



# Uztailak 25

11:00 - 14:00 · 17:00 - 19:00 Gernika plaza

## FAMILIENTZAKO JOLAS INTERAKTIBOAK ETA MINIGOLFA

Juegos Interactivos  
familiares y minigolf

19:00 Zelaieta parkea

## KOADRILEN ARTEKO HERRI KIROLAK

Deporte rural  
entre cuadrillas

Ant · Org: Zornotzako koadrilak

20:00 Herriko plaza

Kale Antzerkia gazteleraz  
en castellano

## “POR HACER UN FAVOR”



Trapu zaharra

21:00 Gernika plaza -  
Zezilia Gallartzagoitia  
Musika kalean

## MARIACHI MEXICO LINDO ¡SI SEÑOR!

22:00 Zelaieta parkea  
Kontzertua

## MARIACHI MEXICO LINDO ¡SI SEÑOR!



22:30 Jauregibarria  
**DRON IKUSKIZUNA**

23:00 Zubiondo plaza  
Kontzertua  
**XABI ABURRUZAGA**

23:30 Jauregibarria  
**DRON IKUSKIZUNA**

## **Uztailak 26**

11:30 - 13:00 Zelaieta parkea  
**UMEENTZAKO  
ZIRKU TAILER IREKIA  
INKLUSIBOA**  
Taller abierto infantil  
inclusivo de circo

13:00 Zelaieta parkea  
Umeentzako Zirko ikuskizuna  
Espectáculo de circo infantil  
**“ZIRKOTEKE”**  
Zirkugintza

18:30 **UMEEN TANBORRADA**  
Tamborrada infantil  
Ibilbidea · Recorrido: Gudari, San Pedro,  
Luis Urrengoetxea, Larrabide, Karmen,  
Konbenio; Gregorio Mendibil, San Juan,  
San Miguel, Zelaieta





21:30 Zelaieta parkea

## KOADRILEN ARTEKO PLAY BACK LEHIAKETA

Concurso Play Back  
entre cuadrillas

Ant · Org: Zornotzako koadrilak



22:00 Zubiondo plaza

Kontzertua - dantza

## JULEN ALONSO + OINKARI DANTZA TALDEA

### Uztailak 27

12:00 - 14:30 · 16:00 - 17:00

Gure Kirolak

## GAZTETXOENTZAT WIPE OUT PARKEA

Parque WIPE OUT  
para adolescentes



15:00 Zelaieta parkea

## KOADRILEN ARTEKO SANTANATXUKO BAZKARIA

Ant · Org: Zornotzako koadrilak



17:00 Gure Kirolak

## KOADRILEN ARTEKO WIPE OUT

Ant · Org: Zornotzako koadrilak



19:00 Gure Kirolak – Zelaieta parkea  
**Zornotza IKOLORE  
ETA ZORHONTZAREN  
AGURRA**

Aniztasunaren kalejira  
Desfile de la diversidad

Ant · Org: Zornotzako koadrilak



21:30 Luis Urrengoetxea  
**Kaleko musika**

**ROCKALEAN  
Elektrotzaranga**



22:00 Zelaieta parkea  
**Erromeria**

**EGAN**



22:30 Zubiondo plaza  
**Kontzertua**

**CAMELA**



# Etzanoko

2022

# Jaiak

## **ABUZTUAK 14, Domeka**

- 18:00 Txupinazoa eta kalejira erraldoiekin
  - 18:00 Mus Txapelketa
  - 18:30 Antzerkia: Markeliñe **"TXEF NATURE"**
  - 20:30 Tortilla Txapelketa (aurkezpena)
  - 22:30 Bertso saioa
- ONINTZA ENBEITA, UNAI ITURRIAGA  
MIREN AMURIZA, SUSTRAI COLINA**
- Gai jartzailea: Amaia Aurrekoetxea

## **ABUZTUAK 15, Astelehena**

- 11:00 Meza
- 11:00 Pilota jaialdia
- 12:00 Esku pelota partidua:  
**OINATZ BENGOETXEA - UNAI URIEN /  
IÑIGO ATUTXA - GORKA LAZKANO**
- 14:30 Herri bazkaria
- 17:00 Aitite-amamei omenaldia Etzanoko dantza taldearekin
- 17:30 Erromeria **EINGO** taldearekin
- 21:00 Taloak (eko taloa)
- 21:00 **KITTU**

## **ABUZTUAK 16, Asteartea**

- 09:30 Xeberren omenezko mendi martxa
- 11:00 Meza
- 11:30 Artzain txakurren lehiaketa
- 17:00 Umeentzako puzgarriak, tailerrak, jolasak...
- 18:00 Hirukoteen arteko Briska txapelketa
- 20:00 Parrilada
- 22:00 Kontzertua eleizan  
**EÑAUT ELORRIETA** akustikoan





ZABALDU  
ZURE **BELDUR  
BARIK**

**BELDUR  
BARIK**  
#JARRERA  
2022

**JARRERA!**



**ERASO SEXISTARIK  
GABEKO FESTAK**

**FIESTAS LIBRES DE  
AGRESIONES SEXISTAS**

Larrialdiak/Emergencias: 112  
Informazioa/Información: 900 840 111

[www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus)



# AMOREBIETA-ETXANOKO JAIETAN ERE, ERASO MATXISTARIK EZ! ERASOTZAILAK KANPORA!

Amorebieta-Etxanoko jaietarako prest? Amorebieta-Etxanon jaiak eraso MATXISTARIK gabe bizi nahi ditugu. Ez bakarrik jaiak, baita gure egunerokotasuna ere.

Hona hemen, indarkeria sexistari aurre egiteko aukerak JAIETAN:

¿Preparadas para las fiestas de Amorebieta? En Amorebieta-Etxano queremos vivir las fiestas sin AGRESIONES MACHISTAS. No sólo en fiestas, sino también en nuestro día a día.

Estas son las opciones para hacer frente a la violencia sexista en las FIESTAS:

## 1. INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO GUNEA- Informazioa, harrera aholkularitza eta salaketa standa.

Emakumeak eta herritarrak orohar indarkeria sexistaz kontzientziatzeko gunea da.

Indarkeria sexista eta erasoen aurrean informazioa, aholkularitza eta harrera jaso dezakezu.

Eraso matxista jasaten baduzu, bertara joan eta laguntza eskatu dezakezu.

## 1. PUNTO SIN VIOLENCIA SEXISTA- stand de información, acogida y asesoramiento.

Es un espacio para concienciar a las mujeres y a la ciudadanía en general sobre la violencia sexista.

Puedes recibir información, asesoramiento y acogida ante la violencia sexista y las agresiones.

Si sufres una agresión machista, podrás solicitar asistencia.

**NOIZ · CUÁNDO:** Uztailak 15, 16, 22, 23, 24, 27 julio  
**ORDUTEGIA · HORARIO:** 20:00 - 00:00  
**NON · LUGAR:** Parque Zelaieta parkean

## 2. 24 orduko arreta telefonoa eta esku-hartzea Amorebieta-Etxanoko jaietan:

 **722 232 869**

**NOIZ:** Uztailak 15, 16, 22, 23, 24 eta 27

Uztailaren 15eko 20:00etan hasiko da

Edozein intentsitateko eraso sexista jasaten baduzu, telefono honetara deitu dezakezu. Hemen, premiazko esku-hartzea, informazioa eta aholkularitza jasoko duzu.

## 2. Atención telefónica 24 horas e intervención en fiestas de Amorebieta-Etxano

 **722 232 869**

**DÍAS** 15, 16, 22, 23, 24 y 27 de julio

Comienza a las 20 horas del día 15 de julio

A través de este teléfono, si eres víctima de una agresión sexista de cualquier intensidad, puedes llamar, aquí recibirás intervención, información y asesoramiento en momentos de urgencia.

## TELEFONO OROKORRAK · TELÉFONOS GENERALES

### Ertzaintza

 **944 66 93 00**

### Udaltzaingoa

Municipales

 **94 630 01 60**

### Larrialdiak

Emergencias

 **112**

### SATEVI - Eusko Jauriaritza · Gobierno Vasco

Urte osoko telefono bidezko 24 orduko arreta zerbitzua  
Servicio de atención telefónica 24 horas durante todo el año

 **900 840 111**

**Hurbildu eta indarkeria sexistari aurre egin!**  
**JAIK ERASO MATXISTARIK GABE BIZI ETA GOZATU**  
**NAHI DITUGU! ERASOTZAILAK KANPORA!**

